

**INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA****7168**

EBAZPENA, 2007ko azaroaren 26koa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen antolakundeei 2008ko ekitaldirako ekonomi laguntzak emateko deialdia argitaratzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduaren bidez (2005eko martxoaren 18ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen antolakundeei diru-laguntzak emateko programa garatu zen. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen (2007ko apirilaren 27ko EHAA).

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008rako Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektuan aurreikusitako aurrekontu-ataletatik aterako dira laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak.

Aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da, hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2008ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritako ahalmenaren indarrez, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Helburua.

1.– Ebazpen honen helburua da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia egitea, 2008ko ekitaldirakoa. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen antolakundeei diru-laguntzak emateko programa arautu zen agindu horren bidez.

2.– Helburu hori betetzeko, 591.000 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008rako aurrekontuen lege-aurreproiektuan horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren arabera. Honela banatuko da diru hori:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan ekitaldi bakoitzean egiten diren 900 eurora arteko ahozko judizioetan kontsumitzaileen eskubide eta interesen defentsarako, 30.000 euroko aurrekontu-kreditua erabiliko da. Defentsa juridikoa Industria, Merkataritza eta Kontsumo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduaren 4.a) artikuluan aipatutakoa da. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen.

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO****7168**

RESOLUCIÓN de 26 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas económicas destinadas a las Organizaciones de Personas Consumidoras del País Vasco para el ejercicio 2008.

La Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo (BOPV de 18 de marzo de 2005), modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007 (BOPV de 27 de abril de 2007) desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a las Organizaciones de Personas Consumidoras del País Vasco.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias previstas en el anteproyecto de Ley de Presupuestos del 2008 de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad a lo establecido en el artículo 5 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2008, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 5 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, por la que se desarrolla el programa de concesión de ayudas económicas destinadas a las Organizaciones de Personas Consumidoras del País Vasco.

2.– Para este fin se destinará un total de 591.000 euros según el correspondiente crédito presupuestario previstos en el anteproyecto de Ley de Presupuestos del 2008 de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se distribuirá de la siguiente manera:

a) Para defensa en juicio de los derechos e intereses de las personas consumidoras, en los juicios verbales de hasta 900 euros de cuantía, que se lleven a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cada ejercicio al que se refiere el artículo 4.a) de la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, se destina un crédito presupuestario de 30.000 euros.

b) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduaren 4.b) artikulua aipatzen dituen kontsumo-proiektuek eragindako gastuak ordaintzeko, 246.000 euroko aurrekontu-kreditua bideratzen da. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen.

c) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduaren 4.c) artikulua aipatzen dituen funtzionamendu-gastuak, mantentze-gastuak, elkartearen defentsa juridikoak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes orokorren defentsak sortutakoak eta gainerako azpiegitura-gastuak ordaintzeko, 315.000 euroko aurrekontu-kreditua bideratzen da. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen.

3.– Diru-laguntzetarako jarritako kopurua aldatu egin daiteke -laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik betiere-, kontuan hartuta eskatu diren laguntza guztiak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste laguntza-programa batzuen aurrekontuetan agortu gabe dituen baliabideak. Horrelakorik gertatuz gero, horren berri emango du Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez.

## 2. artikulua.– Betekizunak.

Eskatzaileek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko, erreferentziako aginduaren 3. artikuluan ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte. Agindu hori 2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen.

## 3. artikulua.– Lehentasuneko gaiak.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 9ko Aginduaren 11. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitakoa betez (2007ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez aldatu zen), diru-laguntza jaso dezaketen kontsumo-proiektuak baloratzeko honako lehentasuneko gai hauek ezartzen dira, ondoren adierazten den hurrenkeran:

- 1.– Telekomunikazioak.
- 2.– Aire-konpainiak eta bidaiak.
- 3.– Gainzorpetzea.
- 4.– Etxebizitza
- 5.– Gremioak
- 6.– SAT.
- 7.– Bermeak.

## 4. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidea egiteko eredia Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde-bulegoetan jaso daiteke, eta interneteko helbide honetan ere bai: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari zuzenduko

b) Para sufragar los gastos derivados de los proyectos de consumo a que se refiere el artículo 4.b) de la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, se destina un crédito presupuestario de 246.000 euros.

c) Para financiar el resto de los gastos derivados de funcionamiento, mantenimiento, defensa jurídica de la asociación, así como defensa de los intereses generales de los consumidores y usuarios y demás gastos de infraestructura a que se refiere el artículo 4.c) de la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, se destina un crédito presupuestario de 315.000 euros.

3.– Los importes consignados en este artículo podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

## Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

## Artículo 3.– Temas prioritarios.

En cumplimiento de lo previsto en el apartado 2 del artículo 11 de la Orden de 9 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, modificada mediante Orden de 3 de abril de 2007, para la valoración de los proyectos de consumo objeto de estas ayudas se establecen los siguientes temas prioritarios, en el orden que se indica a continuación:

- 1.– Telecomunicaciones.
- 2.– Compañías aéreas y viajes.
- 3.– Sobreendeudamiento.
- 4.– Vivienda.
- 5.– Gremios.
- 6.– SAT.
- 7.– Garantías.

## Artículo 4.– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán dirigirse a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial, del Departamento de Industria,

zaizkio, eta, aurkeztu, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan aurkeztu behar dira; edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

3.- Eskabideak aurkezteko epea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2008ko urtarilaren 21ean.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espeditenteen alde aurretiko izapideketa arautzen da. Bada, agindu horrekin bat etorriaz, ebazpen honetan aipatutako laguntzak emateko, kreditu egokia eta aski dena izan beharko da Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldira Aurrekontu Orokorretan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan zehaztutako kreditua ebazpen honetako 1. artikuluan aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldatu egingo da, errealitatean den zenbatekoari egokitzearren. Halakorik gertatuz gero, horren berri emango du Merkataritza, Kontsumo eta Industria Seguritasuneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez eman ere.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**Bigarrena.**— Honako deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 26a.

Merkataritza, Kontsumo  
eta Industria Seguritasuneko sailburuordea,  
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y se presentarán en las Oficinas Territoriales del Departamento en cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.- El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 21 de enero de 2008.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la concesión de las ayudas a que se refiere la presente Resolución, queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del ejercicio 2008.

En el supuesto de que el crédito que figurase finalmente en los Presupuestos Generales del País Vasco del ejercicio 2008 fuese inferior al importe previsto en el artículo 1 de la presente Resolución, se modificará el mismo a fin de adecuarlo al importe realmente existente. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante la correspondiente resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**— La presente Resolución de convocatoria entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2007.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo  
y Seguridad Industrial,  
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.